

LUKIEK, MUSIKA TALDEA

Egiten duguna unibertsala da, ez du bertako markarik

 XABIER BURGAÑA MAZKIARAN  IMANOL IBM

Azeri-azerian iritsi zaigu Lukiek talde mungiarren *opera prima*. Lau urtez zuzenekoak ematen ibili ostean, udaberrian estudioa sartu eta uda pasata argitaratu zuten *Lukiek #1* izeneko diskoa. Bertan, Josu Ximun Billelabeitia (gitarra), Antton Goikoetxea (baxua) eta Christian Rodriguezek (bateria) osatutako hirukoteak urte hauetan ondutako hamahiru abestiko bilduma osatu du. Diskoa aurkezteko kontzertu andana ari dira ematen, eta azaroaren hondarrean eman zuten emanaldi baten aurretik izan genuen tartearen Josu Ximun eta Christian taldekideekin solasean aritzeko.

Lehen kontzertutik lau urte igarota atara duzue lehen lana. Zein ibilbide izan duzue?

Josu Ximun Billelabeitia: Hasi ginenean taldeak uztartzeko arazoak genituen, de-

nok geundelako beste proiektuetan sartuta. Lukiek proiektu paraleloa izan da, eta azken urte honetan hartu du indarra.

Christian Rodriguez: Taldeak funtzionatzen zuela eta jendea gerturatzen hasi zela ikusi genuenean konturatu ginen aurrera egin genezakeela. Proiektuak uztartzeko jakin dugu, eta kontzertu asko eginez gogaitu baino, nahiago genituenak aukeratu ditugu. Azken urtea biziagoa izan da eta estudioa sartzea erabaki dugu.

Diskoak 90eko hamarkadako kutsu nabarmena dauka. Nondik datorkizue eragin hori?

J. X. Billelabeitia: Hirurok gara musika mota ezberdinen zaleak, denetarikoa erreferentzia muturrekoak ditugu, eta hori diskoan ikusten da. Dugun puntu amankomuna 90eko hamarkadako musika da. Lukiek hortik abiatzen da, nahiz eta gero beste ukitu batzuk sartzen dizkiogun. Abestiak anitzak dira, lau urtean egindako abestiak sartu ditugulako, baina dena da Lukiek.

C. Rodriguez: Diskoak batasun bat dauka.

Xabier Egiarekin grabatu duzue El Tigre estudioetan. Nolako izan da prozesua?

J. X. Billelabeitia: Hasieran denok elkarrekin grabatzeko asmoa genuen, zuzeneko asko jo ondoren hirurok elkarrekin genuen soinua gustuko genuelako. Baina behin estudioan proba egin genuen, eta pistak grabatuz bateriaren soinua gustatu zitzaigun. Gainera, horrek gitarra

asko grabatzeko aukera ematen dizu, gitarra murru bat osatuz. Xabi Egiak 90eko hamarkada bizi izan zuen eta uste dugu gure diskoa grabatzeko gogo handia zuela, azkenaldian indie musika asko grabatzen ari baitzen. Taldearen esentzia ondo hartu du.

Hitzetan istorioak, kritikaren bat, hitz jokoak... aurki daitezke.

Zerk inspiratzen ditu?

J. X. Billelabeitia: Oso anitzak dira zentzu horretan. Batzuk azalekoagoak dira, beste batzuk pertsonalagoak edo apur bat korapilatsuagoak. Askotan, ikusten dudana irudi bat deskribatzea gustatzen zait, era abstraktuan. Bestalde, fonetikarekin jolastea oso gustuko dut. Konposatzean asmatutako ingeles moduko batean abesten dut, eta bokal jakin batzuen konbinazioa gustatuz gero, hitzak idaztean euskaraz bokal horiekin kointziditzea bilatzen dut. Azkenean, ahotsa beste instrumentu bat da, eta adibidez pasarte bat "F"-arekin abestuta, agresiboa geratzen da. Lasaia izatea nahi baduzu, beste era batera abesten duzu. Guzti horrek eragina duela uste dut. Batzuetan ez baitakizu abesti batek zergatik duen indarra, baina fonetikaren agresibitatean egon daiteke.

Ximun Agirrek egin dizue diskoaren diseinua, eta bertan abestietako erreferentzia ugari daude. Zer harreman izan duzue berarekin?

J. X. Billelabeitia: Dena astebetean egin zuten, erlojuaren kontra. *Putoamoa* da.



Berak letrak eskatu zizkigun, eta gustuko zituen irudiak aukeratu eta islatu egin zituen. Oso ondo ulertu zuen guk nahi genuena. Oso arina da lanean, eta guk adierazten geniona berehala hartzen zuen.

Autoekoizpenaren bidetik jo duzue. Lan handia eskatzen al du?

C. Rodriguez: Lan handia du, baina nahiko atsegingarria da. Niri pertsonalki asko gustatzen zait, punketik eta autogestioaren mundutik dator, eta ideia hori jarraitu nahi nuke ekonomiaren kudeaketan zein ekoizpen musikalean, bai eta talde gisa egin behar dugun horretan ere. Noski, ondo dator laguntza izatea bai kontzertuetarako kontaktuak eskuratzeko, baita beste arloetan ere. Baina ikusi izan dugu jende asko bere gauzen gaineko kontrola eta boterea galtzen horrenbeste delegatzeagatik, eta ez dugu nahi guri hori gertatzerik. Horregatik, gu arduratzen gara gure gauzez, eta horrekin pozik gaude.

Kontzertuak batez ere gaztetxe eta areto txikietan ari zarete ematen.

C. Rodriguez: Euskal Herrian dagoen gune autogestionatuen eszena babesten dugu, baina besteari muzin egin gabe.

Bateragarri eta beharrezko ikusten dugu gainerakoek bezala areto handiagoetan jotzea. Ez gara ari jaialdi handietan jotzen, horrek profesionaltasun eta konpromiso maila handiagoa eskatuko liguke. Baina espero dugu hori ere iristea.

Baduzue harremanik beste taldeekin?

J. X. Billelabeitia: Harreman ona dugu beste taldeekin, batez ere Mungiakoekin. Bertan talde pila dago: Sua, Toc, Senda, Belako, Wicked Wizard... Ondo dago, zeren beste taldeetako jendea gure kontzertuetara etortzen da, eta gu joaten gara euren kontzertuetara. Zirkulu bat da azkenean; eta oso positiboa da hori herri batentzat, datorren jendearentzat, ikustea zenbat talde sortu diren. Gero, asko lagutzen dugu elkar, eta haiekin jotzea gozamina da, konfiantza handia dagoelako.

Madrilen ere aurkeztuko duzue diskoa [abenduarien 5ean jo zuten bertan]. Euskara hutsez abesten duten taldeek Euskal Herriatik irteteko aukera handiagoak dituztela uste duzue orain?

C. Rodriguez: Egiten duguna unibertsala

da eta ez du bertako markarik. Niretzat plus bat da euskarazko abestiak egitea. Gainera, hirugarrenez goaz Madrilera.

J. X. Billelabeitia: Baina egia da hizkuntzen muga hor dagoela. Esaterako, talde frantsesak hemen ez dira talde anglosaxoiak bezain ezagunak, espainolak ere ez Frantzian. Bestela ere, guk ez ditugu talde katalan asko ezagutzen. Espainiako Estatuan, zentzu horretan, egiteko asko dagoela uste dugu. Gure kasuan bost axola zaigu hizkuntza. Kontzertu bat ikusi eta taldea gustuko badugu, gero jabetuko gara hitzez. Fonetikari ematen diot garrantzia. Ahoskera nagian eta arrastaka abesten dut, eta letrak introspektiboak direnez, hasiera batean jendeak ez du garbi ulertzen. Gera daitezela unibertsalagoa den zerbaitekin, ahotsa beste instrumentu bat baita.

Behin bira bukatuta zein asmo duzue?

C. Rodriguez: Bira ez da amaitzen, eta ideia Euskal Herrian jotzen jarraitzea da, baita bisitatu gabeko lekuetara bidaiatzea ere: Galizia, Andaluzia, Katalunia, Asturias... Furgoa hartu eta jotzen jarraitu nahi genuke, baina presa eta presiorik gabe. ●